

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko urria

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

5. PMI konposatua

6. ELGaren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,7 haziko da 2023an.

Datorren urterako espero den gehikuntza tasak %2,1an jarraitzen du.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen irailean.

Gehikuntza tasa bereziki handia izan zen emakumeen artean (%2,5) eta zerbitzuetan (%2,4).

3. Langabezia erregistratuak behera egin zuen berriro irailean.

Urte arteko aldakuntza tasa -%4,4 izan zen.

4. Inflazioa %2,7an kokatu zen abuztuan

Erregaien garestitzea da igoera horren arrazoi behinena.

5. Euroguneko PMI konposatuak zertxobait egin du hobera.

Adierazleak gora egin du Alemanian, baina beherago kokatu da Frantzian.

6. ELGak iragarri du 2024ko hazkundera 2023koa baino txikiagoa izango dela.

Munduko ekonomiarentzat %3,0ko tasa aurreikusi du aurten eta %2,7koa datorren urtean.




EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %1,7 haziko da 2023an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2023ko BPGA GUZTIRA
%1,7




Urte eta erditik hona bizi diren moneta politika gogortzearen ondorio murriztaileek, inflazioaren maila oraindik ere altuak, batez ere azpiko inflazioarena, eta azken bi hilabeteetan petrolioaren prezioa %20 baino gehiago igotzeak, ahultze prozesu argi batean murgildutako barne eskaria erakusten dute. Halaber, kanpo eskariak ez du hazkunderari ekarpen handirik egiteko itxurarik ematen, merkataritza truke globalen seinale ahulen arabera. Horren guztiaren ondorioz, aurreikuspen ekonomikoko erakunde nagusiek beherantz berrikusi dituzte hazkunde igurikimenak.

EAEko ekonomia ez da salbuespena eta hala jasotzen du bigarren hiru hilabeteetako BPGak. Halere, igorera hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean aurreikusitakoaren (%1,3ko BPGA espero zen) gaineratik dago, eta bere bazkide komertzial nagusiek izandako batez besteko hazkundera baino handiagoa da; beraz, berrikuspen berria ia ez da aldatu ekainean aurrekizutakoarekin alderatuta. Zehazki, oraingo aurreikuspenen arabera, ekonomia %1,7 haziko da 2023an (+%0,1 ekaineko zenbatespenarekin alderatuta), eta 2024an, berri, %2,1 (%0,0), biak termino errealetan.


AZKEN KONTSUMOKO GASTUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegu garbiaren sorrerak eta soldaten igoerak familien gastua %1,8raino bultzatuko dute, eta kapitalaren eraketa gordinaren sendotasunak, 2024an %4,2raino haziko baita, gastu publiko txikiagoa eta kanpoko eskariaren murrizketa konpentsatuko ditu, bi urteetarako hiru hamarrenetan estimatzen dena. Sektoreen ikuspegitik, zerbitzuek jarraituko dute hazkundearen buru izaten, eraikuntzaren laguntzarekin, nahiz eta 2023ko azken txanpan ziurgabetasun handiagoa izan, Euriborraren hazkunde azkarraren ondorioz.

Lan merkatuan, aurreikusten da lanaldi osoko lanpostuak %1,3 eta %1,6 haziko direla 2023an eta 2024an, hurrenez hurren. Langabezia tasa, berriz, %7,7ra motelduko da 2023an, eta %7,0ko batez bestekora iritsiko da 2024an.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehuneko



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,0 hazi zen irailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen irailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Horri esker, luzatu egin da aurreko hilabeteetan nabari zen goranzko joera txikia. Izan ere, azken hamabost hilabeteetako aldakuntza tasarik handiena izan da irailean jasotakoa. Guztira, gaur egungo afiliazioen kopurua 994.992 da, aurreko urtekoa baino 19.102 afiliazio gehiago.

Igoera nabarmenagoa da emakumeen artean, aldakuntza tasa %2,5era iritsi baitzen, eta zortzi hilabetezko bizkortzea erakustendu. Guztira, 474.916 afiliazio daude emakumeen artean, guztizkoaren %47,7. Bestalde, gizonen afiliazioa %1,4an mantendu zen, aurreko bi hilabeteetako tasa berean. Kasu horretan, nolabaiteko egonkortasuna ikusten da hazkunde erritmoan.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

IRAILEKO AFILIAZIOA


%2,0



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektorekako azterketak adierazten du gehikuntzarik handiena zerbitzuetan izan dela (%2,4), baina industriak (%1,1) eta eraikuntzak (%0,7) ere afiliazio berriak ekarri dituzte guztirakora. Zerbitzuen erritmoa gero eta handiagoa da, eta beste bi sektoreek hazkundean egonkortasuna

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



erakusten dute. Jarduera adarren arabera, nabarmentzekoa da hezkuntzak (%4,6), ostalaritzak (%4,2) eta lanbide jarduerak (%3,2), besteak beste, jasotzen duten bultzada handia; aitzitik, gutxi dira urte arteko jaitsierak izan dituzten adarrak.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAK GUZTIRA

	2022ko iraila	2023ko iraila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	975.890	994.992	2,0
Industria manufakturagileak	171.977	173.815	1,1
Merkataritza	134.413	135.283	0,6
Osasun arloko jarduera	112.393	115.442	2,7
Hezkuntza	68.846	71.986	4,6
Administrazio jarduerak	70.244	69.908	-0,5
Ostalaritza	65.744	68.475	4,2
Lanbide jarduerak	59.860	61.764	3,2
Eraikuntza	57.876	58.260	0,7
Administrazio publikoa	50.106	51.338	2,5
Garraioa	44.110	45.491	3,1
Etxeko langileak	28.697	29.000	1,1
Informazioa eta komunikazioa	25.350	27.027	6,6
Bestelako zerbitzuak	25.827	25.892	0,3
Jarduera artistikoak	16.551	17.358	4,9
Finantza jarduerak	16.722	16.857	0,8
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	14.098	13.752	-2,4
Ur horniketa	6.592	6.653	0,9
Higiezin jarduerak	4.282	4.336	1,3
Energia horniketak	1.572	1.743	10,9
Erauzketa industriak	549	532	-3,2
Lurraldez kanpoko erakundeak	81	79	-3,2

Iturria: Gizarte Segurantza.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratuak behera egin zuen berriro irailean

Azken hilabeteetan bezala, berriro berretsi zen erregistratutako langabeziaren beheranzko joera. Zehazki, irailean 106.725 pertsona zeuden lanik gabe, 2008tik hilabete horretan izandako kopururik txikiena, finantza krisi handia hasi baino lehen. Hala ere, beherakadaren erritmoa pixka bat moteldu zen, urte arteko aldakuntza tasa $-4,4$ koa izan baitzen, abuztuan erregistratuta-


koa baino hamarren bat txikiagoa. Era berean, kontratazio mugagabearen bilakaera nabarmena azpimarratu behar da, 20.000 kontratu finkoko zifra gainditu baitzen, eta hori ez zen gertatzen 2022ko urritik. Horregatik guztiagatik, kontratazio mugagabeak guztizkoaren gainean duen pisua $29,2$ ra iritsi zen.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. IRAILA

$-4,4$




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA. GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Sexuaren arabera erregistratutako langabeziaren bilakaerari dagokionez, aurreko aldietan bezala, jaitsiera handiagoa izan zen gizonen artean (-%5,2) emakumeen artean baino (-%3,3). Hala ere, egia da emakumeek jaitsiera erritmoa bizkortu zutela eta gizonek, aldiz, geldiarazi egin zutela. Era berean, adin tarteen arabera

analisiak egiaztatzen du gazteenek portaera kezkarriagoa dutela, %6,0tik gorako hazkundekin. Azkenik, sektore guztiek, salbuespenik gabe, urte arteko jaitsierak izan zituzten, industria (-%10,9) eta eraikuntza (-%8,2) nabarmenduz.

LANGABEAK

	2022ko iraila	2023ko iraila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	111.680	106.725	-4.955
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.378	18.924	-454
Bizkaia	63.021	59.896	-3.125
Gipuzkoa	29.281	27.905	-1.376
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	47.049	44.591	-2.458
Emakumeak	64.631	62.134	-2.497
25 urtetik beherakoak	8.341	8.855	514
25 urte baino gehiago dutenak	103.339	97.870	-5.469
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.006	1.780	-226
Industria	11.732	10.454	-1.278
Eraikuntza	6.699	6.147	-552
Zerbitzuak	78.280	75.124	-3.156
Lehenago lan egin dutenak	98.717	93.505	-5.212
Lehenago lan egin ez dutenak	12.963	13.220	257
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	17.827	18.603	776


Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

Inflazioa %2,7an kokatu zen abuztuan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Abuztua KPIa %2,7ko aldakuntza tasarekin amaitu zen, uztaileko erregistroa baino hamarren bat gorago. Horrenbestez, goranzko joera apala berretsi da. Igoera horren arrazoi nagusia izan zen ibilgailu pertsonalenzako erregaien prezioak garestitu egin zirela eta, neurri txikiagoan, elikagaien prezioek eutsi egin ziotela digitu bikoitzeko igoerak uzteari.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko abuztua
Inflazio osoa	3,1	8,1	2,7
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	6,3
- Elikagai landuak	1,4	10,2	11,2
- Industria ondasunak	1,0	4,7	5,1
- Zerbitzuak	0,7	3,3	4,4
Hondar inflazioa	12,1	20,0	-10,5
- Landu gabeko janariak	2,6	10,8	6,4
- Energia	21,3	28,2	-22,9


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Hainbat faktorek azaltzen dute erregaien prezio horien gorakada. Lehenik eta behin, OPEP+ek ekoizpen helburuak murrizteko hartutako erabakiaren ondoriozko eskaintza arazoak nabarmendu behar dira. Brent petrolio upelak 90 dolarreko muga gainditu du, eta gasolina litroko 1,70 euro inguruko prezioetan arrastatzen du. Erregistro hori ez zen lortzen iazko azarotik. Bigarrenik, eskaintza murrizten ari den bitartean,

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



petrolioaren eskaria handitzen ari da, AEBetako ekonomiaren bilakaerak eta turismoaren susperraldi nabarmenak bultzatuta. Era berean, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea, hamarren bat murriztu arren (%10,1etik %10,0ra, alegia), inflaziogileena izan zen berriz ere, eta BEZaren beherapenak ez ziren nahikoak izan. Horri gehitu behar zaizkio zelaiko lehortek eragiten dituen ondorio negatiboak.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,7	2,6	5,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	10,0	10,5	10,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	6,7	7,6	7,5
Jantziak eta oinetakoak	2,3	2,2	3,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-19,7	-18,0	-0,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	5,4	4,3	5,4
Osasuna	2,6	2,1	3,0
Garraioa	1,9	1,2	4,2
Komunikazioak	4,4	4,3	0,0
Aisia eta kultura	7,8	7,0	6,6
Hezkuntza	1,9	1,6	4,5
Jatetxeak eta hotelak	5,5	6,4	7,3
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	5,5	4,8	5,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



PMI KONPOSATUA


Euroguneko PMI konposatuak zertxobait egin du hobera

Irailean, euroaren eremuko PMIa lau hamarren igo zen eta 47,1ean kokatu zen, oraindik ere jardueraren uzkurdua eremuan. Horrela, adierazleak lau hilabete iraun duen beheranzko joerarekin hautsi du. Bi osagaietatik, zerbitzuak izan dira susperraldi apal horren eragileak, 48,4 puntura iritsi baitira, aurreko balioa baino puntu erdi gorago, nahiz eta sektore horrek ere nola-


baiteko ahultasunaren irudia erakusten duen. Manufakturak, berriz, 43,4tan mantendu ziren, oso kopuru txikian. Europako ekonomiaren ahultasun horren arrazoi nagusia eskaerarik eza da, horrek eragina baitu etorkizunari buruzko igurikimenean. Halere, enplegu garbia sortzen jarraitu zen, baina gero eta erritmo apalagoan. Halaber, kostuak handitu egin ziren berriro.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO IRAILA
47,1




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Europako ekonomiaren bi motorrek kontrako jokabideak erakutsi zituzten. Hala, Alemaniak 1,6 puntu hobetu zuen adierazlea, 46,2ra iritsi arte, zerbitzuen portaera positiboari esker (49,8), hedapen eremutik hurbil baitaude. Bestalde, Frantziak jaitsiera areagotu zuen 43,5era arte, bi sektoreetan izandako emaitza txarrengatik. Herrialde horretako indizea azken hogeita hamar hilabeteetako mailarik baxuenean dago.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batua (46,8) bost hilabetez beherantz doa, eta AEBetan (50,1) zein, bereziki, Japonian (51,8), egoera hobea da.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




ELGA-REN AURREIKUSPENAK

ELGAK iragarri du 2024ko hazkundera 2023koa baino txikiagoa izango dela

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGaren arabera, munduko ekonomiaren hazkundera murriztu egingo da. Izan ere 2022an %3,3 hazi zen, 2023an %3,0 haziko da eta 2024an, berriz, %2,7. Maiztasun handiko jardura adierazleen arabera, dinamismoa galduko da diru politika gogortu egin delako eta Txinako aurreikuspenak okertu egin direlako, barne eskaria ahultzen duten egiturazko arazoak direla eta. Txinako ekonomiaren kasuan, aurreikuspen horren arabera, inflazio tasa %0,5era jaitsiko da 2023an eta %1,3ra 2024an, eta hazkunde igurikimenak ere murriztu egingo dira.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
Munduko ekonomia	3,3	3,0	2,7	0,3	-0,2
AEB	2,1	2,2	1,3	0,6	0,3
Eurogunea	3,4	0,6	1,1	-0,3	-0,4
Alemania	1,9	-0,2	0,9	-0,2	-0,4
Frantzia	2,5	1,0	1,2	0,2	-0,1
Italia	3,8	0,8	0,8	-0,4	-0,2
Espainia	5,5	2,3	1,9	0,2	0,0
Erresuma Batua	4,1	0,3	0,8	0,0	-0,2
Kanada	3,4	1,2	1,4	-0,2	0,0
Japonia	1,0	1,8	1,0	0,5	-0,1
Txina	3,0	5,1	4,6	-0,3	-0,5
India	7,2	6,3	6,0	0,3	-1,0
Brasil	3,0	3,2	1,7	1,5	0,5


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomia aurreratu gehienei dagokienez, finantza baldintzen gogortzeari buruzko gaiak jada utzi dio interes tasak noraino igoko diren aztertzeari, baizik eta zenbat denboraz egongo diren maila altuetan. Nolanahi ere, interes tasa erreal positiboek jarduera ekonomikoa hozteko balioko dute, herrialdearen arabera maila desberdinetan. Horrela, ELGAK %5,5eko inflazioa aurreikusten du 2023rako eurogunean, eta % 6,1ekoa Alemanian eta Italian; Espainiarako zenbatetsi duena, berriz, %3,5 da, EBZk finkatutako interes tasak baino txikiagoa. Aitzitik, inflazioak bere horretan jarraituko du Espainian 2024an (%3,4), eta eurogune osoaren, Alemaniaren (%3,0) eta Italiaren (%2,5) gaintik egongo da.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
BPG	6,0	5,4	6,5	4,8	3,4	2,3	1,5
Barneko azken kontsumoa	5,2	6,0	6,3	6,2	4,4	1,9	1,5
Familien kontsumoa	5,8	7,7	8,7	8,0	5,1	1,7	1,3
Administrazioaren kontsumoa	3,2	0,7	-1,7	0,8	2,2	2,4	2,0
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	10,4	9,9	4,8	1,6	2,5
Barne eskaria	5,3	6,7	7,2	7,1	4,5	1,8	1,7
Esportazioak	10,7	17,1	22,4	16,8	8,6	6,3	-2,5
Inportazioak	9,4	18,7	22,9	20,6	10,2	5,5	-2,0
Lehen arloa	15,1	-8,7	-13,6	-2,3	-7,3	2,1	-6,7
Industria eta energia	5,3	4,7	6,7	3,1	2,4	1,1	-0,5
Eraikuntza	1,0	6,7	7,3	9,0	6,0	0,9	4,2
Zerbitzuak	6,6	5,9	6,8	5,2	3,7	2,9	2,1
Balio erantsi gordina	6,1	5,5	6,6	4,9	3,4	2,4	1,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	4,6	5,2	4,2	3,1	1,6	1,3
Enplegua	2,7	2,8	4,0	2,3	1,8	1,5	1,5

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,7	1,4	1,7	1,5	1,7	2,3	2,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	2,2	1,4	1,8	1,6	0,9	1,7	2,4	1,7
Familien kontsumoa	2,5	1,5	1,8	1,6	0,6	1,9	2,7	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,0	1,6	1,6	1,9	1,0	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	4,6	2,2	2,7	1,8	3,8	5,5	5,9	4,2
Barne eskariaren ekarpena	3,3	1,3	2,1	1,3	1,5	3,0	3,7	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,5	0,1	-0,3	0,2	0,1	-0,7	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-8,6	5,6	-2,2	6,3	7,8	5,3	5,9	6,3
Industria	2,6	1,5	1,2	1,5	1,6	2,2	0,7	1,5
Eraikuntza	0,7	0,0	1,5	0,9	2,0	2,7	3,1	2,2
Zerbitzuak	1,7	1,3	2,0	1,3	1,6	2,4	3,5	2,2
Balio erantsi gordina	1,8	1,3	1,7	1,4	1,6	2,4	2,9	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,6	1,8	2,3	1,7	1,5	2,9	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,1	1,2	1,3	1,3	1,1	1,8	2,1	1,6
Landunak (BJA)	0,8	0,5	0,7	0,8	0,4	0,8	1,2	0,8

EAĒKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
BBVA	2,0	2,6	Laboral kutxa	1,7	—
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	2,5	Confebask	1,5	—
Ceprede	1,7	1,4	Funcas	1,4	—

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
BPG	6,4	5,8	7,2	5,4	3,8	4,2	2,2
Kontsumo pribatua	7,2	4,8	5,0	5,4	2,2	2,6	2,2
Kontsumo publikoa	3,4	-0,2	-1,7	-0,6	1,6	1,2	4,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,8	2,4	3,1	4,0	-0,4	0,0	2,0
- Aktibo finko materialak	1,7	2,1	2,7	3,9	-0,1	0,4	2,3
- Eraikuntzan	0,4	2,6	4,3	3,7	1,2	3,5	4,1
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	1,9	0,8	4,9	-2,0	-4,8	-1,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	7,7	3,8	5,2	4,6	-1,9	-1,9	0,5
Nazio eskaria (ekarpena)	5,1	1,2	3,1	3,0	0,7	1,3	2,3
Esportazioak	13,5	15,2	21,9	12,9	8,7	9,6	-0,8
Inportazioak	14,9	7,0	9,8	6,5	0,1	1,9	-0,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
HSBC	2,5	1,1	Grupo Santander	2,2	1,3
BBVA	2,4	2,1	Repsol	2,1	1,6
UniCredit	2,3	1,6	EthiFinance Ratings	2,1	1,9
La Caixa	2,3	1,7	CEPREDE	2,0	2,4
FUNCAS	2,2	1,6	CEOE	2,0	1,4
UBS	2,2	1,5	Econ Intelligence Unit	2,0	1,4
Inst. Estud. Económicos	2,2	1,5	Fitch Ratings	1,9	1,6
Rabobank	2,2	1,5	Batez bestekoa	2,1	1,4
Moody's Analytics	2,2	1,1	Gobernua (2023-04)	2,1	2,4
S&P Global Market Intel	2,2	0,8	Espainiako Bankua (2023-06)	2,3	2,2
Goldman Sachs	2,2	1,5	Europar Batzordea (2023-09)	2,2	1,9
Oxford Economics	2,2	1,3	NDF (2023-07)	2,5	2,0
Citigroup	2,2	0,6	ELGA (2023-06)	2,1	1,9

Iturria: Consensus Forecast.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
AEB	5,9	2,1	1,9	1,7	0,7	1,7	2,4
Txina	8,1	3,0	0,4	3,9	2,9	4,5	6,3
Japonia	2,1	1,0	1,4	1,5	0,5	1,8	1,7
Kanada	5,0	3,4	4,7	3,8	2,1	2,1	1,1
Europar Batasuna	5,7	3,4	4,2	2,5	1,6	1,1	0,4
Eurogunea	5,6	3,3	4,2	2,3	1,7	1,1	0,5
Alemania	3,2	1,8	1,6	1,2	0,8	-0,3	-0,1
Frantzia	6,8	2,6	3,9	1,2	0,7	0,8	1,0
Erresuma Batua	7,6	4,1	3,8	2,0	0,6	0,2	0,4
Italia	8,3	3,7	5,1	2,5	1,5	2,0	0,4
Herbehereak	6,2	4,3	5,2	3,0	3,1	2,1	0,0

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2023KO IRAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	2,1	0,8	4,1	2,5	3,7	4,3
Japonia	1,8	0,9	3,1	2,0	2,6	2,4
Kanada	1,3	0,7	3,8	2,5	5,4	6,2
Europar Batasuna	0,6	1,1	6,1	2,9	—	—
Eurogunea	0,5	0,7	5,5	2,5	6,5	6,7
Alemania	-0,4	0,6	6,0	2,7	5,6	5,7
Frantzia	0,8	0,8	5,0	2,7	7,1	7,3
Erresuma Batua	0,3	0,4	7,4	3,1	4,2	4,6
Italia	0,8	0,7	6,0	2,4	7,9	7,9
Espania	2,2	1,4	3,6	3,0	—	—
Herbehereak	0,5	1,0	4,2	2,8	—	—

Iturria: Consensus Forecast.